



# HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUKO IKUSKARIENTZAT ETA HEZKUNTZA IKUSKARIENTZAT LEKUALDATZE- LEHIAKETAK 2009/2010 IKASTURTERAKO

## INFORMAZIO-OHARRA

### Deialdia argitara ematen den data:

- 2009ko abenduaren 4ko EHAA.

### Eskaerak aurkezteko epea:

**2009ko abenduaren 5etik 23ra bitartean**, biak barne.

Komeni da interesatuek parte hartzeko eskaeraren kopia bat gordetzea, data jarrita eta zigilatua.

### Eskaerak aurkezteko tokia:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak sartzen dituen aldaketekin, 38.4. artikuluan aipatzen dituen egoitzetako edozeinetan.

### Eskaeren formatua eta betetzeko era:

Eskaera guztiak eredu ofizialari (III. eranskina) lotuko zaizkio, jarraian adierazten den legez lortu ahal izango duzuen Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzan, baita Hezkuntza Sailaren web orrian ere: [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net), Pertsonalaren atalean-----> Pertsonal Hornikuntza-Irakasleak-> lekualdatze-lehiaketak.

Eskaera betetzeko, argibideen III. eranskinean adierazitakoaren arabera jokatuko da. Halaber, eskaera-inprimakiak atzeko aldean sartzen dituen argibideak ere hartuko dira kontuan.

**Agirien konpultsatzea:**

Merezimenduak justifikatzeko agiri guztiek konpultsatzearen eginbidea eraman beharko dute.

**Ikuskarien 2009ko LEPn parte hartzen dutenak:**

Destinoak esleitzeko, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioari erreparatuko zaio. Ez dute merezimenduak egiaztatzeko inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

**GARRANTZITSUA:**

1. Gogorarazi behar da parte hartzeko eskaerarekin batera, ezarritako epearen barruan, aurkeztu behar dela alegatzen diren merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa. Epeak bukatu ondoren, ez da inolako dokumentaziorik onartuko.

2. Eskaera betetzean ahalik eta arretarik handiena ipintzeko eskatzen da, akatsak, eskaeren atalean batez ere, izan ez daitezzen. Gogoan izan ondorengo laukiak izan behar dituela, derrigorrean, ikastetxe-eskaera batek:

- **8** zenbaki-kode + “**C**”

- **Lauki 1** euskara hizkuntzaren kodearentzako **C** ala **D**

3. I. eranskinean ikuskaritza zentruen kodeak aurki daitezke.